

10. KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat aurrera ateratzeko, bidetik hainabat gastu egin behar dira, orain arte buruan genuen guztia errealitate bihurtzeko. Honako hauek dira aurreikusi ditugun gastuak:

Gure kostu handiena eta hileru berdina izango dena, Belartzako lokal handiaren alokairua izango da. Jarraian, materialaren erosketarena; hau gastu handia izango da enpresa martxan jartzen dugun momentuan, izan ere, behin minimo batzuk edukita, hobekuntzak bakarrik egin beharko ditugu (askoz kantitate txikiagoan). Gainera, hileru nahiko berdintsu baina kontsumoaren arabera aldatuko den argia ere ordaindu beharko dugu. Beste gastu bat, marketing-a aurrera eramateko behar ditugun material eta zerbitzuak dira; adibidez, wifia.